

**FUNZIONAMENDU ARAUAK**
**Ospitalizazioko Unitatea-MEDIKUNTZA NUKLEARRA**
**Dei egiteko beharrea bazaude, ERABILI GELAKO TXIRRINA**
**MEDIKUAREN BISITA / FAMILIARTEKOENTZAKO INFORMAZIOA**

- Ospitaleratutako pazienteak zarenaz, zure osasuna berreskuratzen eta ezarritako arauak eta jarraibideak betetzen lagundu behar duzu, eta **osasun-sistemak eskaintzen dituen** zerbitzuak egoki erabiltzeaz arduratu. Ospitalizazio-unitateetik borondatez irtetekotan, eskatzen dizugu osasun-langileei kontsultatzea eta informatzea, laguntza- asistentzialaren jarraipena bermatu ahal izateko; halaber, **ospitaletik ez ateratzeko eskatzen dizugu.**
- Eskatu laguntza behar duzun guztietan.
- Egunero pijama edo ohe-atorra jasoko duzu. Norberaren garbitasunerako, bainugela bat dago logelan, dutxa eta guzti.
- Geletako komunak pazienteentzat dira. Laguntzaileentzako komunak igogailuak dauden tokian daude.
- Lagundu ospitalean ISILTASUNARI eusten.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratzeko unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifizialak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurrunak edo lurgabeak.
- Ospitaleak ez du zure objektu pertsonalak bere gain hartuko.

**MEDIKUAREN IKUSTALDIA ETA FAMILIARTEKOENTZAKO INFORMAZIOA**


- Egunero 9:00etatik 13.00etara.
- Pazientearen eboluzioari buruzko informazioa bisita egin bezain laster ematen da.
- Norberaren datuen babeserako 2018/3 Lege Organikoaren arabera, ezin dizugu ingresaturik dagoen inorri buruzko informaziorik eskaini, zuri dagokizu non dagoen jakitea.

**OTORDUAK**


08:15 - 08:45 Gosaria  
 12:45.- 13:15 Bazkaria  
 16:45 - 17:15 Askaria  
 19:45 - 20:15 Afaria

**BISITAK**

- 15:00etatik 22:00etara- Astegunetan
  - 08:00etatik 22:00etara – Larunbat eta igandeetan
  - Gehienez pertsona 1 paziente bakoitzeko.**
- Nahi izanez gero, senide bat zurekin 24 orduz egon daiteke.

**BESTE GAUZA JAKINGARRI BATZUK**


Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).


**LAGUNTZA ETA HEZKUNTZA SANITARIOA**

Memento jakin batean beharrezkoa izango da familiartekoren baten presentzia alta ondoko zainketak nola egin ikasten laguntzeko.



**Ingresuko egiaztagiria** (enpresarako, oheburuko medikuarentzat edo familiartekoentzat), behe solairuan, sarreran, dagoen Harrerako Unitatean jaso daiteke.


**SANTIAGO OSPITALEKO TELEFONO ZENBAKIA: 945-007600**

8:00etatik 22:00etara, logelan deiak jaso daitezke, telefono honetara deituz: 945000887. Kanpora deitzeko, logelatik, telebistako txartelaren bidez ere deitu dezakezu.



**Telebista-zerbitzua** ez da ospitalearen berezko zerbitzua. Erabiltzeko, txip-txartela eta entzungailuak behar dira; atarian duzu tresna horiek lortzeko makina (dena den, zure entzungailuak ere ekar ditzakezu, nahi izanez gero). Txartelak duen diru-kopurua ez da itzuliko, baina ez dauka iraugintze-datarik, hortaz berriro erabil daiteke. Matxuraren bat gertatu edo behar izanez gero, deitu 1422 edo 636 46 59 37 telefonora. Telebista - eta telefono-ekipoak sistema berean integratuta daudenez, ezin dira telebistak deskonektatu, telefono-zerbitzua ere automatikoki deskonektatuko litzateke-e.


**KAFETEGIA** Ordutegia: 7:30etik 22:00etara.

Ate nagusiaren aurrean dago.

Itxarongeletan kafeak eta freskagarriak ematen dituen makina batzuk daude.



**OSPITALEKO ALTA:** Ahal dela, bezperan emango zaizu horren berri. Komenigarria da alta egunean senideren batekin izatea.

Altaren egunean komenigarria da gela uztea txostena jaso ostean, behar duten pazienteentzat ohea prestatzeko.



**ERLIJO ZERBITZU KATOLIKOA:** AUoko SANTIAGO kapera, MISA ORDUTEGIA: ASTELEHENETIK ASTELEHENERA 20:00etan; IGANDEAK ETA JAIEGUNAK 11:30ean. Arrosarioa Eukaristia baino 30 minutu lehenago ospatzen da.

- Harremanetarako Telefonoa: **618 75 14 15.**

**PAZIENTEAK ETA ERABILTZAILEAK ATENDITZEKO ZERBITZUA (PEAZ)** beheko solairuan dago. Ordutegia: 9:00etatik 14:30era (astelehenetik ostegunera). **Gizarte-langilea:** 3. C solairuan dago.